



87/1984 DEKRETUA, OTSAILAREN 20KOA, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEEI BURUZKO LEGEAREN ERREGLAMENDUA ONARTZEN DUENA

2024ko apirilaren 2tik indarrean dagoen testua. Dokumentu honek izaera informatiboa baino ez du. Testu ofizialak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoak dira.¹

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legearen azken xedapenetatik lehenengoak Jaurlaritzari ematen dio ahalmena, Osasun eta Gizarte Segurantzako sailburuak eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak hórrela proposatuta, euren eskumenen barruan, lege hori garatzeko arauzko xedapenak eman ditzan.

Halaber, 9., 16., 20., 22., 23. eta 24. artikuluek berariaz jasotzen dute Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen gai zehatzen erregelamendu- garapena.

Ondorioz, Legean jasotako alderdiak zehaztu eta arautzeko, egokia da Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Erregelamendua artikulatzea.

Horrenbestez, Osasun eta Gizarte Segurantzza Saileko eta Ekonomia eta Ogasun Saileko sailburu titularrek proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 1984ko otsailaren 20an egindako batzarrean proposamena aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1etik 6ra bitarteko artikulua. INDARGABETUTA, urriaren 27ko 203/2015 Dekretua dela bide.

II KAPITULUA. BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEAK ERATZEARI BURUZ

¹ 87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena: 64 zenbakiko EHAA, 1984ko apirilaren 16koa. Hutsen zuzenketa: EHAA, 96. zk., 1984ko ekainaren 7koa.

92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzen dituena: EHAA, 115. zk., 2007ko ekainaren 15a.

203/2015 Dekretua, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena: EHAA, 234. zk., 2015eko abenduaren 9koa, asteazkena. Hutsen zuzenketa: EHAA, 244. zk., 2015eko abenduaren 23a, asteazkena. Hutsen zuzenketa: EHAA, 12. zk., 2016ko urtarrilaren 20a, asteazkena.

7.etik 11.era bitarteko artikulua. INDARGABETUTA urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren bidez.

²12. artikulua

Erretiro, ezintasun iraunkor, lanerako baliaezintasun, heriotza, mendekotasun, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larrien kontingentzietarako prestazioak ematen dituzten borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek, arrisku biometrikoen estaldura edo inbertsioaren emaitza edo prestazio-maila jakin bat beren gain hartzen badute, inskribatzeko, eskatzen diren gainerako dokumentu guztiekin batera, azterketa aktuarial bat aurkeztu beharko dute, gutxienez, puntu hauekin:

- a) Heriotza-tasari, biziraupenari eta baliaezintasunari dagokienez erabili dituen taulak, hala badagokio; eta, horrez gain, taula horiek egokiak direla adierazten duen justifikazioa.
- b) Erabilitako interes-tasa eta, halaber, horren justifikazioa.
- c) Hautatutako finantzaketa-metodoa, 49. artikuluan adierazitakoa betez.
- d) Gutxienerako bazkide-kopurua, azterketa baliozkoa izan dadin.
- e) Taldearen proiektzio biometrikoak.
- f) Kontuan hartutako administrazio-gastuak eta horien justifikazioa, 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Kuoten eta prestazioen kalkulua.
- h) Ondoriozko erreserba matematikoak.
- i) Zer formula aplikatzen diren gizarte-aurreikuspeneko eta hornidura teknikoetako planaren kostua zehazteko, barnean hartuta, hala badagokio, segurtasun-marjina eratzeari buruzko aurreikuspena. Formula horiek azterlan aktuarialaren eranskin espezifiko batean jaso beharko dira.

13tik 15era bitarteko artikulua. INDARGABETUTA urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren bidez.

³16. artikulua

² Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak eta otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuak aldatutako artikulua.

³ Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak eta urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak aldatutako artikulua.

1. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen administrazio-gastuak dagokion erakundearen estatutuetan kontsignatutakoak izango dira eta inolaz ere ezingo dituzte gainditu, prestazio motaren arabera, jarraian adierazten diren ehunekoak:

1.1. ⁴Erretiro, heriotza, ezintasun iraunkor, mendekotasun, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larrien kontingentziak estaltzen dituzten eta ekarpen finkatuko sistemaren arabera diharduten BGAEen administrazio-gastuak dagozkien erregelamenduetan jaso behar dira, ehunekotan, estatutuen arabera. Administrazio-gastuak gizarte-aurreikuspeneko plan bakoitzari atxikitako ondarearen arabera edo plan horren eta bere errendimenduen arabera ezarriko dira, eta ezingo dira muga hauetatik gorakoak izan urteko zenbaketan:

- a) Bakarrik kalkulatzen badira planari atxikitako ondarearen arabera, errenta finkoko inbertsio-orientazioa duten planetan eta plan bermatuetan, % 0,90; errenta finko mistoko planetan, % 1,30; eta gainerako planetan, planari atxikitako ondarearen % 1,50.
- b) Bi aldagaiak erabiltzen badira, atxikitako ondarearen % 1 eta errendimenduen % 10.

Lortutako errendimenduen gaineko ehunekoa bakarrik aplikatu ahal izango da baldin eta zati alikuota bakoitzaren balioak, artikuluko honetako 1.5 paragrafoak aipaturiko aldirako kalkulaturik, portzentaje hori aplikatu ondoren, gainditzeko badu aurreikuspen-plana sortu zenez geroztik hark lorturiko gehieneko balioa. Hala ere, bost ekitalditan ezin izan bada errendimenduen gaineko ehunekoa aplikatu, aukeran egongo da gainditu beharreko beste balio bat ezartzea: bosgarren ekitaldiko azkena.

1.2. ⁵Ondorio horietarako, administrazio-gastutzat joko dira zuzeneko nahiz zeharkako gastu guztiak ere, baldin eta gastu horiek aurreikuspen-plan bakoitzari atxikitako ondarea administratzearen ondorio badira, baina baloreen salerosketatik eratorritako bitartekotza-gastuen salbuespenarekin. BGAEak inbertsio kolektiboko erakundeetan inbertitzen badu, aurreko 1.1 paragrafoan ezarritako mugek batera eragingo dute kudeatzaile, gordailuzain edo erakundeek jaso behar dituzten komisio metatuen gainean.

BGAEak inbertitzen badu arrisku-kapitaleko erakundeetan edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeetan, zeinak arautzen baitira BGAEen jardura jakin batzuk arautzeko zen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan, aurreko paragrafoa aplikatuko da baldin

⁴ Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak eta otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuak aldatutako atala.

⁵ Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak eta otsailaren 13ko 13/2024 Dekretuak aldatutako atala.

eta erakunde horiek erakunde kudeatzailearen edo bazkide sustatzailearen finantza-talde berekoak badira.

Finantza-talde berekoak ez badira, erakunde kudeatzaileek jasanarazi egin ahal izango dituzte arrisku-kapitaleko erakundeetan edo inbertsio kolektiboko erakunde itxietan egindako inbertsioen ondoriozko komisioak, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11 ter.k) eta 11 ter.m) artikuluetan araututakoak, gehienez ere % 0,55eko mugaraino, administrazio-gastuen zenbaketari aplikatu beharreko oinarri beraren gainean kalkulatuta, artikuluko honen 1.1 paragrafoan adierazitako komisioez gain.

Kasu horretan, zuzenean edo zeharka jasan ditzaketen kudeaketa-komisioen gehieneko maila adierazi beharko da dagokion gizarte-aurreikuspeneko planaren erregelamenduan, eta maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 4. artikuluko 3. apartatuan ezarritako sei hilean behingo edo urtean behingo informazioan, berriz, informazio horri dagokion aldian benetan jasandako zuzeneko eta zeharkako kudeaketa-komisioak adierazi beharko dira, eurotan eta atxikitako ondarearen gaineko ehunekotan adierazita, eta dagokion aurreikuspen-planaren errentagarritasunean zer eragin duten adierazita.

Inbertsio kolektiboko erakunde irekietan zein itxietan —arrisku-kapitaleko erakundeak barne— inbertitzeagatiko komisioen itzulketa oro aurreikuspen-planari egotzi beharko zaio.

- 1.3. Aurreikuspen-planari atxikitako ondareztat hartuko da, prestazioak, mobilizazioak edota erreskateak kenduta, ekarpen guztiek —kalkulari dagokion aldian eginikoak salbu— zehazten duten kapitalizazio funtsa gehi inbertituriko baliabideek eta aktiboen gainbalioek edo minusbalioek sortutako errendimenduak ken aurreko 1.1 atalarekin bat etorriz aurreikuspen-plan bakoitzerako ezarritako administrazio-gastuak. Aipaturiko errendimenduei dagokienez, kalkulari dagokion eguneko merkatuaren prezioan baloratuko dira edo, kalkulu hori egongo ez balitz, haren balio efektiboaren arabera, zuhurtzia handieneko irizpideei jarraituz eta oro har baloratzeko erabili ohi diren bideak aplikatuz. Ondare atxikia zati alikuotetan banatuko da.
- 1.4. Bazkide arrunt eta onuradun bakoitzaren eskubide ekonomikoak eragiketa honen emaitza dira: zati alikuota bakoitzaren balioa bider bazkide bakoitzari egozgarri zaizkion zati alikuoten kopurua.
- 1.5. Banakako modalitatean atxikitako ondarearen zati alikuota bakoitzaren balioa egunero zehaztu beharko da. Enplegu-modalitatean edo elkartuan, likidazio-balioa hilean behin gutxienez zehaztu beharko da, hil bakoitzeko azken egunean.

2. Zehaztutako prestazioko sistemaren eraginpean jarduten duten borondatezko gizarte- aurreikuspeneko erakundeen administrazio-gastuak erakunde horien estatutuetan jasotakoarekin bat etorritik idatzita azaldu beharko dira dagozkien arauetan, ehunekotan emanda. Gastu horiek urteko kopuruan ezingo dute % 2 gainditu ez urteko hornidura matematikoen guztiarekiko ezta, halakorik balego, bazkide arrunt eta onuradun bakoitzari egotzitakoekiko; horiek osatzen dituzte, hain zuzen ere, euren eskubide ekonomikoak. Ondorio horietarako, administrazio-gastutzat artikulua honetako 1.2 atalean ezarritakoak hartuko dira.
3. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen administrazio-gastuak, betiere ulertuta horien xedeko jarduerak ez direla erretiroko aurreikuspen-planak, heriotzakoak, ezintasun iraunkorrekoak, luzaroko langabeziakoak edo gaixoaldi larrikoak, beste jarduera batzuk baizik, estatutuetan kontsignatutakoak izango dira, eta gastu horiek ezingo dute gainditu bi kopuru hauetako handiena:
 - a) Itxitako azken ekitaldian sortu diren kuota eta derramen zenbatekoaren % 15.
 - b) Hornidura teknikoaren zenbatekoaren urteko % 2,6.Ondorio hauetarako, administrazio-gastutzat hartuko dira langileen gastuak, amortizazioetarako zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuengatikoko gastuak.
4. Salbuespenez, eta betiere Erakundeak behar bezala justifikatu badu, Finantza Zuzendaritzak ahalmena du artikulua honetan ezarritako gehieneko mugak baino gastu- portzentaje handiagoa baimentzeko, aldi baterako.

17tik 24ra bitarteko artikulua. INDARGABETUTA, urriaren 27ko 203/2015 Dekretua dela bide.

III. KAPITULUA. BAZKIDEAK

25etik 30era bitarteko artikulua. INDARGABETUTA, urriaren 27ko 203/2015 Dekretua dela bide.

631. artikulua

Osorik edo zati batean xede horretarako metatutako erreserben kargura finantzatu diren prestazioen egitate sortzailearen aurretik bazkide baten borondatezko baja gertatzen denean, Erakundeak estatutuetan formula hauekoren bat arautuko du, gutxienez 10 urteko gabealdia betetzen duen bazkidearentzat:

⁶ Maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak eta urriaren 27ko 203/2015 Dekretuak aldatutako artikulua.

- a) Bazkide izaten jarraitzeko aukera, kotizatzeko eta bere garaian prestazioak jasotzeko.
- b) Prestazio murriztuetarako eskubidea, eginiko kotizazioei dagokienez.
- c) Metaturiko erretserbak itzultzea. Ondorio horietarako, BGAEko banakako modalitateko edo modalitate elkartuko bazkideek aurretiaz eskuratu ahal izango dute banakako modalitateko edo modalitate elkartuko aurreikuspen-planetarako egindako ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoen zenbateko osoa edo zati bat, hamar urtetik gorako antzintasuna baldin badute.

Halaber, aurreikuspen-planak integratzen dituzten borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek estatutuetan ezarriko dute bazkide arruntaren eta onuradunaren eskubidea beren eskubide ekonomikoak beste aurreikuspen-plan batera mugitzeko, honako arau hauei jarraituz:

- a) Banakako modalitateko aurreikuspen-planetan, eskubide ekonomikoen mugimendua preskripzio hauen arabera egingo da:
 - i) Baldin eta onuradunak hala eskatzen badu eta betiere prestazioaren berme eta aseguramendu baldintzek horretarako aukera ematen badute, onuradunen eskubide ekonomikoak beste aurreikuspen-plan batzuetara mugitu ahal izango dira.
 - ii) Bazkide arruntak edo onuradunak bere eskubideen hartzaile izango den erakundeari idatzi beharko dio, bazkidea ez bada bazkide gisa hartzeko xedez eta funtsak hartzea onar dezan. Gainera, funtsak nondik mugitu nahi dituen zehaztuko du, Erakundea eta plana identifikatuta. Halaber, xede-erakundeari baimen bat erantsiko dio, bere izenean jatorrizko erakundeari zenbateko zehatz bat edo bere eskubide ekonomiko guztiei dagokiena eska diezaion, baita ziurtagiri bat ere, non aipatutako eskubide ekonomikoak sortu zituen lehenengo ekarpenaren data agertuko baita.
 - iii) Eskubide ekonomikoak mugitzeko gehieneko epea bost egun baliodunekoa izango da, jatorrizko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen dokumentazio guztia aurkezten den egunetik aurrera.
- b) Bai zehaztutako ekarpenari bai zehaztutako prestazioari dagokienez, enplegu-modalitateko aurreikuspen-planetan eskubide ekonomikoak mugitzeak —betiere eskubide horiek hala aitortuta badaude— baldintza bat izango du, jardunean edo etendura egoeran dagoen bazkide arruntak bazkide babeslearekin duen lan-harremana amaitzea, alegia. Eskubideen mugimendua —eskubide guztiena izan beharko du— lehentasunez beste

enplegu-plan batera egingo da, eta, hala ez denean, beste edozein aurreikuspen-planera, betiere betetzen baditu jatorrizko BGAEren estatutueta aurretiaz ezarri diren prestazioak kobratzeko moduaren gaineko baldintzak eta ezaugarriak. Bazkideak funtsak mugitzeko eskubidea erabiltzeko epea, estatutueta ezarritakoaren arabera, ezin izango da bi urtetik gorakoa izan, lan-harremana amaitzen denetik kontaktzen hasita. Interesdunak funtsak mugitzeko eskaera egin ondoren, Erakundeak bi hilabete baino lehenago egin beharko du. Enpleguko aurreikuspen-planen bazkide pasibo eta onuradunek, eskubideak mugitzeari dagokionez, estatutueta ezarritakoari jarraituko diote. Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planek bidezko tratamendua eman beharko diote etendura egoeran dauden bazkideek aitortuta dituzten eskubide ekonomikoen balioari. Tratamendua bidezkoa dela ulertuko da, baldin eta, gutxienez, etendura egoerako bazkidea sartuta dagoen aurreikuspen-planaren aktiboen inbertsioagatik lortzen den errendimendu-tasaren arabera egokitzen bada eskubide ekonomikoen balioa.

- c)** Modalitate elkartuko BGAEek beren estatutueta ezarriko dute bazkide arruntak eta onuradunak beren eskubide ekonomikoak beste edozein aurreikuspen-planetara mugitzeko izango duten eskubidea, edo, bestela, ezarriko dute mugitze hori elkarte-lotura haustera baldintzatuta egotea. Lehenengo kasua bada, aurreko a) hizkian ezarritakoari jarraituko zaio eta, bigarrena bada, aurreko b) hizkian ezarritakoari.

- d)** d) Eskubide ekonomikoak mugitzeak ez die inolako gasturik sortuko bazkide arruntari edo onuradunari, ez eta eskubide horien gutxitzerik ere.

32tik 69ra bitarteko artikulua. INDARGABETUTA, urriaren 27ko 203/2015 Dekretua dela bide.